



2006ko Inkesta Demografikoaren ondoriozko mikrodatuak

Fitxategiaren deskribapena

AURKIBIDEA

2. Aldagaiak hautatzeko irizpideak	2
2.1 Isilpekotasuna gordetzeko irizpideak	2
2.2 Kalitatearen inguruko irizpideak	3
2.2.1 Egokitasuna	3
2.2.2 Alderagarritasuna	3
2.2.3 Zehaztasuna eta fidagarritasuna	3
3. Erregistroaren diseinua	4
4. Jasokariak	4
5. Aldagaien deskribapena	5
I. ERANSKINA	6

[Mikrodatuen fitxategiak eskatzeko inprimakia](#)

1. Sarrera

2006ko Inkesta Demografikoaren (aurrerantzean 2006ko DBI) ondoriozko fitxategia mikrodatuak aztertu eta tratatzeko eskarmentua duten erabiltzaileen artean zabaltzen den produktua da. Formatu horrek balio erantsia eskaintzen dio erabiltzaileari; hau da, ohiko formatuko taulen, argitalpenen eta txostenen ondorioz orain arte ezin izan ditu datuak ustiatu eta aztertu, baina formatu berriari esker aukera hori izango du.

2006ko DBIren irismena eta xedea ez da bakarrik fitxategi horretan bildutakoa (familien osaeraren, ugalkortasunaren, elkartzeen eta abarren azterketa). Ustiapen-lan ugari egiteko aukera ematen duen produktua da; Euskal AEko familien eta banakoen aldagai soziodemografiko garrantzitsuenak jasotzen ditu eta honakoak bezalako gai interesgarriak aztertzen ditu: familien ezaugarriak eta ingurua, lan-merkatua, hezkuntza maila, euskararen erabilera, migrazioa, etab.¹

2. Aldagaiak hautatzeko irizpideak

Inkesta honen egitura eta dimentsioa konplexua da. Hori kontuan hartuta, inkestak tratatzeko prest utziz jasotzen dituen etxebizitzetako eta banakoei buruzko aldagaien azpimultzo bat hautatu da. Hautapen hori egitean, isilpekotasuna gordetzeaz gainera informazioaren kalitatea zaindu da. Hona hemen xehetasunak:

2.1 Isilpekotasuna gordetzeko irizpideak

Informazioa ematen dutenekin sekretu estatistikoa betetzea da estatistika jardueraren premisa nagusia. Beraz, sekretu estatistikoak babesten duen banakoei buruzko informazioa modu anonimoan zabaldu behar bada; ezin da ikusi estatistika unitateen identitatea, ezta zabaldutako aldagaien edukia edo desagregazioaren bitartez ere.

Babes hori bermatze aldera, hain zuzen, zabaldu beharreko mikrodatuen fitxategiari honako murrizketak aplikatu zaizkio:

- Ez dira, inola ere, sartzen zuzeneko identifikaziorako aldagaiak edo datu pertsonalak (NAN, izena, abizenak, helbideak, telefono zenbakiak, etab.).
- Desagregazio geografiko handienak ALDEA (eskualde multzoa) eta probintziako hiriburuak dira.
- Erreferentziako pertsonaren adina bost urteko taldeetan sartzen da, aldagai demografiko honek eman dezakeelako identifikatzeko aukerarik argiena. Adinari edo aldiari buruzko beste erreferentzia batzuk ere aurkezten dira bost edo hamar urteko taldeetan (adibidez: udalerrira heldu zen urtea, etxebizitza eraiki zen urtea, etab.).
- Familia eta etxebizitza ezaugarritzen duten aldagaien multzo estandarrak erabiltzen dira unitate "bereziak" identifikatu ez daitezkeen (adibidez: familia oso ugariak, etxebizitza handiak, etab.).
- Ez da etxebizitzaren identifikatzailerik ematen; horrela ezin dira isolatu familia bereko banakoak. Fitxategian sartzen den estatistika unitate oinarrikoena banakoa da. Dena den, erreferentziako pertsonari dagokion erregistroa iragazteko aldagaia ematen da, fitxategia etxebizitza mailan ustiatu dadin.

¹ Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta itzazu hurrengo inkestari lotutako galdeketa eta dokumentazioa: www.eustat.es/estadisticas/idioma_e/tema_165/opt_0/tipo_3/ti_Familias/temas.html

- Ez da sartu gai sentikorren bati buruzko aldagaiak. Eta mota horretako gaiak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak bereziki babesten dituenak dira: osasuna, arraza, erlijioa, ideologia, finantzak, etab.

2.2 Kalitatearen inguruko irizpideak

Produktu estatistikoetan aztertu eta tratatu beharreko beste alderdi bat datuen kalitatea da. EUROSTATEk sustatutako faktore jakin batzuen arabera defini daiteke produktu estatistikoaren kalitatea: egokitasuna, fidagarritasuna eta zehaztasuna, egokitasuna eta zehaztasuna, koherentzia eta alderagarritasuna, erabilerraztasuna eta argitasuna.

Kasu honetan, 2006ko DBIren ondoriozko mikrodatuen fitxategian sartu beharreko aldagaiak hautatze aldera, informazioaren egokitasuna (datuek azken erabiltzailearentzat duten garrantzia edo interesa), alderagarritasuna eta zehaztasuna hartu ditugu kontuan.

2.2.1 Egokitasuna

Inkestan hainbat aldagai biltzen dira, baina laburpena egiten saiatu eta inkestaren erabiltzaile nagusienarentzat interes eta garrantzi handiena dutenak bakarrik sartu dira. Honako oharrak egin behar dira:

- Lehenengoz sartu dira inkesta honetan etxebizitzaren ekipamenduari, ingurune fisikoari eta gizarte inguruneari buruzko aldagaiak, azken urteotan horiek direlako erabiltzailearentzat interesgarrienak.
- Lan-merkatuaren, hezkuntza mailaren eta euskararen erabileraren aldagai garrantzitsuenak sartu dira, baita migrazioari buruzko aldagai nagusienak ere. Oro har, erabiltzailearentzat horiek guztiak dira interesgarrienak.

2.2.2 Alderagarritasuna

- Ez dira sartu autosailkapenaren aldagaiak², aldagai horien ondoriozko zenbatespenen objektibotasunaren eta alderagarritasunaren inguruan arazorik sortu ez dadin (adibidez: langabeziari, lanik ezari eta abarrei buruzko egoera).

2.2.3 Zehaztasuna eta fidagarritasuna

Laginketa bidezko edozein inkestatan muga nagusiena da laginaren unitateetarako informazioa bakarrik dagoela, eta ez xede diren biztanle guztientzako informazioa. Inkestako laginaren diseinuak argituko du jasotako informazioarekin zein ordezkaritza maila lortu den.

2006ko DBIn, laginak duen tamainari esker (25.000 etxebizitza eta 66.822 pertsona) ordezkaritza nahiko onargarria lortzen da, EUSTATEk egindako laginketa bidezko gainerako inkestetako baina desagregazio geografiko handiagoarekin. Inkesta honetarako ez dira modu sistematikoan kalkulatu laginketa-erroreak. Hala ere, behean dagoen taulan, inkestako laginaren diseinua oinarritzat hartuta kalkulatu diren gehieneko errore teorikoak ematen dira. Zehazki, diseinu horren bidez lagina lurralde historikoaren eta udalerriaren tamainaren arabera geruzatzen da, eta geruza bakoitzaren barruan unitateak modu sistematikoan aukeratzen dira:

² Autosailkapenaren aldagai batean, inkesta betetzen duen pertsonak bere burua kategoria jakin batean sartzen du, hautemate subjektiboaren arabera betiere.

Gehieneko aldakuntza-koefizienteak (AK), geruzatutako laginketan etxebizitzaren ehunekoak duen zatia kontuan hartuta. 2006ko DBI.

	Beteta dauden etxebizitzaren lagina	Laginaren biztanle kopuru esparrua	AK (%)
Euskal AE, guztira	25.000	2.082.587	% 0,65
1. + 100.000 biztanle	9.862	745.201	% 1,04
2. 40.000-100.000	3.841	376.688	% 1,61
3. 10.000-40.000	6.485	560.466	% 1,25
4. Gehienez 10.000 biztanle	4.812	400.232	% 1,47
Araba, guztira	5.539	286.387	% 1,33
1. + 100.000 biztanle	4.194	216.852	% 1,53
2. 40.000-100.000	-	-	-
3. 10.000-40.000	366	18.931	% 5,18
4. Gehienez 10.000 biztanle	979	50.604	% 3,17
Bizkaia, guztira	10.966	1.122.637	% 0,95
1. + 100.000 biztanle	3.418	349.972	% 1,70
2. 40.000-100.000	3.127	320.087	% 1,78
3. 10.000-40.000	2.447	250.579	% 2,01
4. Gehienez 10.000 biztanle	1.974	201.999	% 2,24
Gipuzkoa, guztira	8.495	673.563	% 1,08
1. + 100.000 biztanle	2.250	178.377	% 2,10
2. 40.000-100.000	714	56.601	% 3,72
3. 10.000-40.000	3.672	290.956	% 1,64
4. Gehienez 10.000 biztanle	1.859	147.629	% 2,31

Laginak errore maila onargarria duela esaten dugunean, aldakuntza-koefizienteak % 10 eta % 15 artekoak izaten dira. Hori kontuan hartuta, inkesta honek zehaztasun bikaina lortu du laginaren geruzei dagokienez. Dena den, fitxategi honetako aldagaien artean gerta daitezkeen gurutzaketekin lortutako zehaztasunak ez du bermatzen datu horien bidez egiten diren ustiaketa edo azterketa guztietan adierazgarritasun estatistiko hori lortuko dela. Beste modu batera esanda, datu hauen bidez egindako azterketa edo analisisen ondorioak azken erabiltzailearen erantzukizuna dira.

3. Erregistroaren diseinua

2006ko DBIren ondoriozko mikrodatuen fitxategiak testu formatua du, zutabe finakoak ditu eta inkestak etxebizitza, familia eta banakoetarako bildu dituen gaien arabera dago egituratuta. Aldagaien deskribapena, aldagai mota, inguruabarrak eta fitxategian duten kokapen zehatza "Diseño_registro_EDV06.xls" izeneko Excel fitxategian (mikrodatuen fitxategiari erantsen zaio) deskribatzen dira.

4. Jasokariak

2006ko DBIn erabili diren doitzeko eta geruzatzearen osteko metodoari esker, kalkulatu den jasokaria bakarra da etxebizitzetarako eta banakoentzat. Hau da, emandako jasokaria ondo doitunga Euskal AEn okupatutako etxebizitza kopuru osora eta biztanle kopuru osora. Inkesta bete duen pertsona kopurua adina erregistro jasotzen da fitxategian³; orduan, etxebizitza kopurua doitzeko eta fitxategia maila horretan ustiatu ahal izateko, erregistro bakarra iragazi beharko da etxebizitza bakoitzeko. Horretarako, iragazketa hori egiteko eta etxebizitzen lagina lortzeko aukera ematen duen aldagai bat ematen da (PARE=1).

5. Aldagaien deskribapena

Kodetzearen literalak sartu dira, baita fitxategian jaso diren aldagaietako bakoitzean erabilitako sailkapenak ere. Joan I. eranskinera.

³ Elkarrizketa egin den unean lagineko etxebizitzetan bizi ziren banako guztiei buruzko informazioa jasotzen da inkestan.

I. ERANSKINA

EDV06.txt FITXATEGIAREN DESKRIBAPENA

LURH. Egoitza dagoen lurralde historikoa

- 01 Araba
- 20 Gipuzkoa
- 48 Bizkaia

EALD. Egoitza aldea

- 1 Arabako Lautada
- 2 Arabako gainerako aldea
- 3 Bilbo handia
- 4 Durangaldea
- 5 Gernika-Bermeo+Plentzia-Mungia+Markina-Ondarroa
- 6 Arratia-Nerbioi+Enkarterri
- 7 Donostialdea+Bidasoa Beherea
- 8 Deba Garaia+Deba Beherea+Urola Kosta
- 9 Tolosaldea+Goierri

EUDA. Egoitza duen udalerria (probintzien hiriburuak soilik)

- 1 Bilbo
- 2 Vitoria-Gasteiz
- 3 Donostia-San Sebastián
- 4 Gainerako udalerrak

UBER. Ur beroa du

- 1 Bai
- 2 Ez

ERAU. Etxebizitza eraikitako urtea

- 1 ≤ 1900
- 2 1901 - 1940
- 3 1941 - 1950
- 4 1951 - 1960
- 5 1961 - 1970
- 6 1971 - 1980
- 7 1981 - 1990
- 8 1991 - 2000
- 9 ≥ 2001

BEROG. Berogailua du

- 1 Zentrala
- 2 Indibiduala
- 3 Isolatutako gailuak
- 4 Ez du

GASH. Gasa du hodietan banatuta

- 1 Bai
- 2 Ez

GELK. Gela kopurua

- 1 1 – 3 gela
- 2 4 gela
- 3 5 gela
- 4 6 gela
- 5 7 gela edo gehiago

EDUA. Lurra edukitzeko araubidea

- 1 Jabetzan
- 2 Alokairuan
- 3 Bestelakoa

AZAE. Etxebizitzaren azalera erabilgarria

- 1 ≤ 30 m²
- 2 31 – 60 m²
- 3 61 – 90 m²
- 4 91 – 120 m²
- 5 121 – 150 m²
- 6 151 – 180 m²
- 7 ≥ 181 m²

TELF. Telefono finkoa du

- 1 Bai
- 2 Ez

FAMT. Familiaren tamaina

- 1 Pertsona 1
- 2 2 pertsona
- 3 3 - 5 pertsona
- 4 6 - 9 pertsona
- 5 10 pertsona edo gehiago

FAMM. Familia mota

- 1 Kide bakarreko familia
- 2 Pertsona bat baino gehiagokoa
- 3 Nuklearra baina seme-alabarik gabekoa
- 4 Nuklearra eta seme-alabaduna
- 5 Guraso bakarrekoa (aita edo ama)
- 6 Zabaldua
- 7 Nukleo anitzekoa

BAINK. Bainugela kopurua

- 1 Ez du
- 2 Bainugela 1 du
- 3 Bainugela 2 ditu
- 4 3 bainugela edo gehiago ditu

SAKT. Sakelako telefonoa du

- 1 Bai
- 2 Ez

HOZS. Hozteko sistema du

- 1 Bai
- 2 Ez

APARK. Aparkalekua

- 1 Lurpeko aparkalekua
- 2 Azaleko aparkalekua
- 3 Ez du aparkalekurik

ZARX. Etxebizitzan zaratak

- 1 Bai
- 2 Ez

KUTS. Etxebizitzan kutsadura edo kiratsa

- 1 Bai
- 2 Ez

GARB. Garbitasun gutxi kaleetan

- 1 Bai
- 2 Ez

KOMT. Komunikazio txarrak

- 1 Bai
- 2 Ez

BERDG. Berdegune gutxi

- 1 Bai
- 2 Ez

DELIN. Delinkuentzia dago etxebizitza inguruan

- 1 Bai
- 2 Ez

EZIB. Legezko egoera zibila

- 1 Ezkongabea
- 2 Ezkondua
- 3 Alarguna
- 4 Dibortziatua, banandua

FAMI. Familiako bizikidetzak

- 1 Gurasoekin bizi da
- 2 Bere familia nuklearra du
- 3 Kide bakarreko familia da
- 4 Kide bat baino gehiagoko familia da
- 5 Bestelakoa

PARE. Familian nor da

- 1 Erreferentziako pertsona
- 2 Beste ahaide bat

SEXUA. Sexua

- 1 Gizona
- 2 Emakumea

FAMIM. Familiaren maila

- 1 Pertsona nagusia
- 2 Taldeko burua
- 3 Familia taldeko kideak
- 4 Pertsona bakartuak

NUTA. Nukleoaren tamaina

- 1 Pertsona 1
- 2 2 pertsona
- 3 3 pertsona
- 4 4 - 5 pertsona
- 5 6 pertsona edo gehiago

NUKM. Nukleo mota

- 1 Pertsona bakartuak
- 2 1. nukleoa: ezkontideak soilik
- 3 1. nukleoa: ezkontideak eta seme-alabak
- 4 1. nukleoa: aita edo ama eta seme-alabak
- 5 2. eta 3. nukleoa: ezkontideak soilik
- 6 2. eta 3. nukleoa: ezkontideak eta seme-alabak
- 7 2. eta 3. nukleoa: aita edo ama eta seme-alabak

ADINA. Bost urtekako adina

- 1 0 – 4 urte
- 2 5 – 9 urte
- 3 10 – 14 urte
- 4 15 – 19 urte
- 5 20 – 24 urte
- 6 25 – 29 urte

- 7 30 – 34 urte
- 8 35 – 39 urte
- 9 40 – 44 urte
- 10 45 – 49 urte
- 11 50 – 54 urte
- 12 55 – 59 urte
- 13 60 – 64 urte
- 14 65 – 69 urte
- 15 70 – 74 urte
- 16 75 – 79 urte
- 17 80 – 84 urte
- 18 85 urte eta gehiago

ERROL. Erroldako egoera

- 1 Etxebizitzan dago erroldatuta
- 2 Ez dago erroldatuta etxebizitzan

JAAE- Jaiotako autonomia erkidegoa

- 1 Andaluzia
- 2 Aragoi
- 3 Asturias
- 4 Kantabria
- 5 Gaztela eta Leon
- 6 Gaztela-Mantxa
- 7 Katalunia
- 8 Valentziako Erkidegoa
- 9 Extremadura
- 10 Galizia
- 11 Madril
- 12 Nafarroa
- 13 Euskadi
- 14 Errioxa
- 15 Beste autonomia erkidego batzuk
- 16 Atzerria

JAIOT. Jaioterrria (EAE)

- 1 Araba
- 2 Bizkaia
- 3 Gipuzkoa
- 4 Beste probintzia batzuk
- 5 Atzerria

JAI OA. Jaiotza aldea

- 1 Arabako Lautada
- 2 Arabako gainerako aldea
- 3 Bilbo handia
- 4 Durangaldea
- 5 Gernika-Bermeo+Plentzia-Mungia+Markina-Ondarroa
- 6 Arratia-Nerbioi+Enkarterri
- 7 Donostialdea+Bidasoa Beherea
- 8 Deba Garaia+Deba Beherea+Urola Kosta
- 9 Tolosaldea+Goierri

NAZI1. Naziotasuna (eremu handiak)

- 1 Europa
- 2 Ipar Amerika
- 3 Erdialdeko Amerika
- 4 Hego Amerika
- 5 Asia
- 6 Afrika
- 7 Ozeania

ERLA1. Jarduerarekiko erlazioa (ikasketak)

- 1 Ikaslea da
- 2 Ez du ikasten

ERLA2. Jarduerarekin erlazioa (etxeko lanak)

- 1 Etxeko lanak egiten ditu
- 2 Ez ditu etxeko lanak egiten

ERLA3. Jarduerarekiko erlazioa (erretiroa)

- 1 Erretiratua, pentsionista da
- 2 Ez da erretiratua, pentsionista

ERLA5. Jarduerarekiko erlazioa (lana)

- 1 Landunak
- 2 Langabetuak
- 3 Ez-aktiboak

ERLA8. Jarduerarekiko erlazioa (langabezia)

- 1 Lehen lana bilatzen dagoen langabetua da
- 2 Aurretik lan egin duen langabetua da

LAAE. Lan egiten duen autonomia erkidegoa

- 1 Andaluzia
- 2 Aragoi
- 3 Asturias
- 4 Kantabria
- 5 Gaztela eta Leon
- 6 Gaztela-Mantxa
- 7 Katalunia
- 8 Valentziako Erkidegoa
- 9 Extremadura
- 10 Galizia
- 11 Madril
- 12 Nafarroa
- 13 Euskadi
- 14 Errioxa
- 15 Beste autonomia erkidego batzuk
- 16 Atzerria

LALD. Lan egiten duen aldea

- 1 Arabako Lautada
- 2 Arabako gainerako aldea
- 3 Bilbo handia
- 4 Durangaldea
- 5 Gernika-Bermeo+Plentzia-Mungia+Markina-Ondarroa
- 6 Arratia-Nerbioi+Enkarterri
- 7 Donostialdea+Bidasoa Beherea
- 8 Deba Garaia+Deba Beherea+Urola Kosta
- 9 Tolosaldea+Goierri

ESOZ. Egoera sozioekonomikoa

- 1 Goi mailako taldeak
- 2 Tarteko lanbideak eta enplegatuenak
- 3 Artisauak eta nekazariak
- 4 Gaitutako langileak
- 5 Gaituta ez dauden langileak
- 6 Besteren menpeko ez-aktiboak

ETXL2 – Etxeko lanak (dedikazioa)

- 1 Ohikotasunez, egiten diren bakoitzean
- 2 Ohikotasunez, asteburuetan

- 3 Aldizka
- 4 Gutxitan
- 5 Inoiz ere ez

LANT – Lantokia (EAE)

- 1 Araba
- 2 Bizkaia
- 3 Gipuzkoa
- 4 Beste probintzia batzuk
- 5 Atzerria

LANB1 – Lanbidea (LSN digitu 1ekin)

- 1 Zuzendariak, kudeatzaileak
- 2 Profesionalak, zientzialariak
- 3 Laguntza teknikariak
- 4 Administrazio arloko langileak
- 5 Saltzaileak, zerbitzariak
- 6 Nekazariak, arrantzaleak
- 7 Gaitutako langileak
- 8 Makina operadoreak
- 9 Gaituta ez dauden langileak

LANE – Lanbide egoera

- 1 Enpresaburuak
- 2 Autonomoak
- 3 Kooperatibistak
- 4 Soldatakoak
- 5 Behin-behineko langileak
- 6 Familia laguntzak
- 7 Beste batzuk

ANAF – Analfabetismoa

- 1 Bai
- 2 Ez

IDED – Ikasteko dedikazioa

- 1 Osoa
- 2 Ertaina
- 3 Txikia

EKEN – Euskara ulertzen du

- 1 Asko
- 2 Hala moduz
- 3 Gutxi

EKES – Euskara idazten du

- 1 Ondo
- 2 Hala moduz
- 3 Maila apalarekin

EKHA – Euskara hitz egiten du

- 1 Ondo
- 2 Hala moduz
- 3 Maila apalarekin

EKLE – Euskara irakurtzen du

- 1 Ondo
- 2 Hala moduz
- 3 Maila apalarekin

EKNG – Euskararen maila orokorra

- 1 Euskalduna da
- 2 Ia-euskalduna da
- 3 Erdalduna da

AMHI– Ama hizkuntza

- 1 Euskara
- 2 Gaztelania
- 3 Biak
- 4 Beste bat

IMAI. Ikasketa maila (multzo handiak)

- 1 Analfabetoak
- 2 Ikasketarik gabeak
- 3 Eskolaurreko eta lehen mailako ikasketadunak
- 4 Profesionalak
- 5 Bigarren mailako ikasketadunak
- 6 Maila ertain eta goi maila arteko ikasketadunak
- 7 Goi mailako ikasketadunak

HELU. Egungo egoitza duen udalerrira heldu zen urtea (bost urteko multzoetan)

- 1 ≤1950
- 2 1951-1955
- 3 1956-1960
- 4 1961-1965
- 5 1966-1970
- 6 1971-1975
- 7 1976-1980
- 8 1981-1985
- 9 1986-1990
- 10 1991-1995
- 11 1996-2000
- 12 2001-2005
- 13 2006-2007

JAAE. Jatorriko autonomia erkidegoa

- 1 Andaluzia
- 2 Aragoi
- 3 Asturias
- 4 Kantabria
- 5 Gaztela eta Leon
- 6 Gaztela-Mantxa
- 7 Katalunia
- 8 Valentziako Erkidegoa
- 9 Extremadura
- 10 Galizia
- 11 Madril
- 12 Nafarroa
- 13 Euskadi
- 14 Errioxa
- 15 Beste autonomia erkidego batzuk
- 16 Atzerria

JATA. Jatorriko aldea

- 1 Arabako Lautada
- 2 Arabako gainerako aldea
- 3 Bilbo handia
- 4 Durangaldea
- 5 Gernika-Bermeo+Plentzia-Mungia+Markina-Ondarroa
- 6 Arratia-Nerbioi+Enkarteri
- 7 Donostialdea+Bidasoa Beherea

- 8 Deba Garaia+Deba Beherea+Urola Kosta
- 9 Tolosaldea+Goierri

EGOI – Egoitzaren iraupena (bost urteko multzoetan)

- 1 0 – 4 urte
- 2 5 – 9 urte
- 3 10 – 14 urte
- 4 15 – 19 urte
- 5 20 – 24 urte
- 6 25 – 29 urte
- 7 30 – 34 urte
- 8 35 – 39 urte
- 9 40 – 44 urte
- 10 45 – 49 urte
- 11 50 – 54 urte
- 12 55 – 59 urte
- 13 60 – 64 urte
- 14 65 – 69 urte
- 15 70 – 74 urte
- 16 75 – 79 urte
- 17 80 – 84 urte
- 18 85 urte eta gehiago

MIGA1 – Migrazioaren adina (bost urteko multzoetan)

- 1 0 – 4 urte
- 2 5 – 9 urte
- 3 10 – 14 urte
- 4 15 – 19 urte
- 5 20 – 24 urte
- 6 25 – 29 urte
- 7 30 – 34 urte
- 8 35 – 39 urte
- 9 40 – 44 urte
- 10 45 – 49 urte
- 11 50 – 54 urte
- 12 55 – 59 urte
- 13 60 – 64 urte
- 14 65 – 69 urte
- 15 70 – 74 urte
- 16 75 urte eta gehiago

JATL. Jatorriko lurraldea (EAE)

- 1 Araba
- 2 Bizkaia
- 3 Gipuzkoa
- 4 Beste probintzia batzuk
- 5 Atzerria

EL10. Egoitzaren lurraldea 10 urte lehenago (EAE)

- 1 Araba
- 2 Bizkaia
- 3 Gipuzkoa
- 4 Beste probintzia batzuk

EGOA – Egoitza aldaketak

- 1 Aldaketa 1
- 2 2 aldaketa
- 3 3 aldaketa edo gehiago

NAZI. Naziotasuna

- 1 Espainiarra

- 2 Espainiarra eta beste bat
- 3 Beste bat

EGON. Egonekoa

- 1 Bai
- 2 Ez